

**MZA**



**MUNDUA ZELAN  
ALDATU**

## ÍNDICE

LABURPENA	3
HARTZAILEAK	4
HELBURUAK	5
PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA	6
EDUKIAK	
EKINTZA-PLANA	
KULTURA-BERRIKUNTZA	8
JARDUERAK	9
HEDAPENA	10



# 1

## LABUR PENA

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda, pertsonen, planetaren, oparotasunaren eta aliantza aldeko ekintza-plana da. Garapen Iraunkorreko Helburuen ekintza plana hiru zutabeetan oinarritzen da: arlo soziala, ekonomikoa eta ingurumena. MZA proiektuak, beste zutabe bat ere garatzen du; musikaren bitartezko kultura. Zutabe honen helburua, bake unibertsala eta giza eskubideak indartzea da, honen bitartez 17 GJHrekiko interesa pizteko. Hori dela eta, proiektuak laugarren zutabe gisa hartzen du kultura, musikaren bidez Garapen Jasangarriko Helburuekiko konpromisoa sustatzeko ikaskuntza eta motibazio prozesu bat proposatzeko.

Kultura laugarren zubate gisa hartuz, garapen jasangarriaren beste hiru zutabeekin oso lotuta dago. Bere proposamen eraldatzaileak balio-hazi baten gisa eratzen dira eta gizarteratzean, ekonomia jasangarrian eta ingurumen-orekan lagun dezakete.

Musikak hizkuntza unibertsal giza duen rola, berebiziko garrantzia du pertsonen ahalduntzean, batasunean eta transmisioan.

Ondorioz, musikak, maila lokalean dugun garapenerako eredia birpentsatzea egin dezake, aldi berean garapen jasangarriko helburu mundialak toki guztietara modu gertu eta sortzailean iristaraziz.



# 2 HAR TZAILEAK

Ikaslegazteen parte-hartzea, garapen iraunkorrerako aurrebaldintza bat da; izan ere, aldaketa eragile bihur daitezke Garapen Jasangarrirako Helburuen aurrerapenak mugiaraziz eta agendaren ezarpen eta sustapenean paper esaguratsua izanik. Horregatik, ezagutza eta motibazioa ematea ezinbestekoa da, horrela inguratzen gaituen munduarekiko konpromisoa onartu ahal izateko eta ingurune iraunkor batean bihurtzeko.




# 3

## HEL BURUAK

Gure gizartea eraldatuko duen konpromisoa sortzea, pertsonen bizitza hobetzeko, aldi berean, ingurumenarekiko, ikaskuntzarekiko, emakumeen berdintasunarekiko eta degradazio-prozesuan dauden giza asentamenduen regenerazioarekiko errespetua bultzatuz.

Gure ingurune hurbilenean, eraldaketa jasangarri baterako garapen helburuak aurrera eramatearen garrantziari buruz gizartea kontzientziatzea.

Ikastetxeetako ikasleek sortutako eta ekoiztutako musikaren bitartez Garapen Iraunkorrerako Helburuak sustatzea.





# 4

## PROIEKTU AREN DESKRI BAPENA

### Proiektuaren deskribapena

Proiektuaren metodologiak Lola Gerrikaetxebarria artista interdiziplinarraren eta parte-hartzaileen arteko interaktibitatea proposatzea du. Horren helburua, Garapen Jasangarriko Helburu bakoitzerako inspiratuta eta eskainita dauden prozesu parte-hartzaileen bidez bertso eta leloen abesti bat idatzi eta konposatu ahal izatea da. Musika bateratua da eta Mundua Zelan Aldatu (MZA) proiektuko ikasleen parte-hartzearekin aberasten da.

### Edukiak

Aldaketa sozial, ekonomiko eta ingurumeneko aldaketak, gaur egungo munduak dituen erronka nagusiak dira. Testuinguru honetan, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH), pobrezia amaiara emateko, planeta babesteko eta mundu guztiaren bizi baldintzak eta ikuspuntua hobetzeko ekintzarako dei unibertsalak dira.



### Ekintza-plana

2030 Agendaren ekintza planak, planetarentzako eta gizateriarentzako garrantzi kritikoa duten esparruei buruzko helburuak eta jomugak sustatuko ditu datozen urteetan.

# 4

## PROIEKTU AREN DESKRI BAPENA

- **Pertsonak**

Forma eta dimentsio guztietan pobrezari eta goseari amaiera ematea eta gizaki guztiek beren potentziala duintasunez eta berdintasunez eta ingurumen osasungarrian gauzatu ahal izan dezaten zaintzea.

- **Planeta**

Planeta degradazioaren aurka babestea, kontsumo eta ekoizpen jasangarriaren, baliabide naturalen kudeaketa jasangarriaren eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko premiazko neurrien bidez. Helburua, honen bitartez gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzea.

- **Oparotasuna**

Gizaki guztiek bizitza oparo eta betea izan dezaten zaintzea eta garapen ekonomiko, sozial eta teknologikoa naturarekin harmonian garatzea.

- **Bakea**

Beldurretik eta indarkeriatik libre dauden gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak bultzatzea. Ezin da garapen iraunkorrik egon bakerik gabe, ezta bakerik ere garapen iraunkorrik gabe.

- **Aliantzak**

2030 Agenda ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak mugiaraztea Garapen iraunkorrerako Munduko Aliantza biziberrituaren bitartez. Aliantza hau mundu-mailako elkartasun handiagoa duen espiritu batean oinarritzea eta, bereziki, pobreenen eta ahulenen beharretan zentratzea, herrialde guztien, alderdi interesdun guztien eta pertsona guztien lankidetzaren bitartez.

Garapen Iraunkorreko Helburuen eta horien izaera integratuaren arteko loturak funtsezkoak dira Agenda berriaren helburuak betetzeko. Agendaren alderdi guztietan lortu nahi duguna lortzen badugu, pertsona guztien bizi-baldintzak hobetuko dira eta gure mundua leku iraunkorrago batean bihurtuko da.

# 5

## KULTURA BERRI KUNTZA

MZA proiektuan, kultura-berrikuntzaren presentziak, sormena gizartea eraldatzeko motor gisa erabiltzeko aukera zabaltzen du. Horrez gain, hau egin ahal izateko, inguratzen gaituen munduaren ikuspegi holistikoa sustantzen duen hibridazio-testuingurua sortzen da. Kultura gure izatearen parte da, eta gure nortasuna pertsona desberdin gisa konfiguratzeko du. Kulturarik gabe garapen iraunkorra ezinezkoa izango litzateke.

Kultura-berrikuntzaren konbinazioak, beste berrikuntza formekin batera, (kulturala, soziala, teknologikoa, hezigarria edo digitala) honako parametro hauen garapena ahalbidetzen du: sareko lankidetzaren proiektuan parte hartzen duten ikasleen kolektiboaren inplikazio zuzena izatea, proposamen sortzaileen garapena lortzea, musika prototipo gisa izatea eta gizarteak aurre egin behar diren iraunkortasun-erronkei eta gainontzeko erronkei erantzuteko funtsezko elementuak sortzea.





### GJHei buruzko abesti bat taldean sortzeko musika-konposizio tailerra

Tailer honetako melodiak inspiraziotik sortzen dira eta ikasleen sormen-sentimenduak mesedetzen duten eta konektatzen duten emozioak sortzen duten abestiak sortzen dira. Horretarako, aukeratutako musika estiloa, kantatua baino gehiago, erritmo sinkopatuaren errezitazioa izango da.

Horrez gain, konposatuko den abestiaren grabazioaren eta soinu-edizioaren atalean, proiektuan parte hartzen duten ikasle guztiek protagonismoa izango dute. Musika konposizio honetan, kultura anitzeko gizarte bati erreferentzia eginez, hizkuntza desberdinak erabiltzeko aukera planteatzen da.

### GJH-ei buruzko musika kontzertua

#### **Lola Guerricaechebarria**

Lola Guerricaechebarria, eszenatokian Lova Lois bezala ezagutua, musikan eta testuinguru artistikoan marka esanguratsua utzi duen disziplena anitzeko artista talentuduna da. Bere ikuspegia, gai sozialetan eta bidegabekeriak salatzearekin duen konpromisoan oinarritu eta nabarmentzen da. Balioen sustapen honek, berak aitortzen duenez, salaketa soziala nahiko lukeen bezain ohikoa ez den belaunaldi batetik bereitzen dio.

# 6

## JARDU ERAK

Kontzertu honetan, Lola Guerricaechebarriak, GJHei buruzko abesti bat konposatzeko tailerrean parte hartu duten ikasleekin partekatuko du protagonismoa, oholtza gainean musika-abesbatza bat osatuz.



### Bideo-ediziorako irudien tailerra

Tailer honetan, ikusizko arteen bitartez, ikasleek 17 GJHeekin lotutako irudiak sortuko diruzte, bideo baten edizioan GJHei buruzko musika-konposizioarekin batera.

# 7

HEDA  
PENA

Kontzertua grabatu eta youtube-rako esteka baten bitartez sare sozialetara igoko da.



BEGIRA  
ELKARTEA

MUNDUA ZELAN ALDATU